



TOKIKO AGENDA 21AREN EKINTZA PLANA

Udalerria: Zuia

Izenburua / Título:	TOKIKO AGENDA 21AREN EKINTZA PLANA. Zuia			
Egileak / Autores:	Paisaia, Gestión y Ordenación del Paisaje, S.L.			
Hartzaileak / Destinatarios:	Zuiako Udala			
Edizioko data / Fecha de edición:	2011ko martxoaren 16an			
Itzulpena / Traducción				
Orriak / Páginas:	21			
Bertsioa / Versión:	PAL-ZU-1.0eu			
Erreferentzia / Referencia:				
Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:				
Iraupena / Duración:				
Bertsioen historia / Historial de las versiones:	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas
<hr/>				
<hr/>				

EKINTZA PLANA EGITEN PARTE HARTU DUTEN PERTSONA ETA ERAKUNDEAK ¹

UDALEKO ARDURADUN POLITIKOAK

- Francisco Goikoetxea Alkatea
- Roberto Landa Zinegotzia
- Ricardo Martínez Zinegotzia
- Itziar Ircio Zinegotzia
- Mertxe Iturrate Zinegotzia
- Conchi Lopez Zinegotzia
- Juan Carlos Alonso Zinegotzia
- Luis M^a Sautu Zinegotzia

BATZAR ADMINISTRATIBOAK

- Juan Carlos García Ametzagako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Pedro José R Larrinaga, Ametzagako Batzar Administratiboa
- Isidro Otxoa de Eribe Aperregiko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Joseba Eguiluz Bitorianoko Batzar Administratiboko Lehendakaria eta Zuiako zinegotzia
- Agustin Otsoa Eribeko Domaikiako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Jose Miguel Iturrate Jugoko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Eduardo Urrutia Markinako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Juan Manuel Larrazabal Murgiako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Juan Carlos San Martin Sarriako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- M^a Carmen Lopez de Uralde Zarateko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Joseba Zabala Lukianoko Alkatea eta Zuiako zinegotzia

UDAL TEKNIKARIAK

- Susana Zubiaur Udal Idazkaria
- Estibaliz Bolinaga Gizarte Langilea
- Manex Agirre Euskara Teknikaria
- Juan Ruiz Aparejadorea

¹ Kontuan izan dokumentua idazten hasi zentik zerrenda honetan aipatzen den pertsonaren batek adierazten den postua/kargua utzi ahal izan duela.

- Cristina Sevilla Kultura Teknikaria
- Luis Casado Tokiko Agenda 21eko Teknikaria

ELKARTEAK, UDAL TALDEAK, ETA BESTELAKO ERAKUNDEAK

- Atzabal Mendi Taldea
- Zuiako Emakumeen Elkarte
- Arabako Baserritar Inguruko Emakumeen Sarea
- Oroko Andre Mariaren Kofradia
- Jubilatuen Elkarte
- Cáritas
- Zuia Futbol K. E.
- Zuia 02
- Arkupe Pilota

UDALAZ GAINKO ERAKUNDEAK

- Jon Ezkurdia Gorbeako Inguruen Partzuergoaren Idazkaria
- Oihana Martinez Lan eta Ekonomiaren Sustapenaren Teknikaria

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

PAISAIA, S.M.

- Miren Askasibar Bereziartua. Koordinazioa. Biologian Lizentziatua eta Paisajista

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	6
1.1. Tokiko Ekintza Planaren osaketa-lanak	6
1.2. Tokiko Ekintza Planaren jarraipena eta urteko programazioaren inguruan ohar laburrak	8
2. TOKIKO EKINTZA PLANA.....	9
2.1. Udalerrirako finkatutako ikuspegia eta xedeak.....	9
2.1.1. Ikuspegia	9
2.1.2. Xedeak.....	9
2.2. Tokiko Ekintza Plana	10
2.2.1. Tokiko Ekintza Planaren egitura	10
2.2.2. Zuiako Tokiko Ekintza Planaren edukiak	10

1. SARRERA

1.1. Tokiko Ekintza Planaren osaketa-lanak

Tokiko Ekintza Plana ondoko eragileen parte-hartzearekin egin da: Udaleko teknikari nahiz ordezkari politikoak, Batzar Administratiboak, Zuiako Taldeko teknikariak, eragile sozialak, eta herritarrak. Udaleko ordezkari politikoez, eta Batzar Administratiboek Tokiko Agenda 21aren Batzordearen baitan hartu dute parte, Udaleko eta Zuiako Taldeko teknikariek udaleko Tokiko Agenda 21eko koordinatzailearen bitartez hartu dute parte, eta herritarrek herri batzar edo foro baten bidez.

Herri batzarra deitu aurretik, Tokiko Ekintza Planaren eskemaren zirriborro bat osatu zen, ondoko informazioa abiapuntutzat hartuz: Diagnostikoko jarduerarako eremu-lehenetsietatik eratorritako ekintzak, udaleko eta Zuiako taldeko teknikarien ekarpenak, Administrazio Batzarren ekarpenak, eta Udaleko ordezkari politikoen ekarpenak.

Herri batzarra 2010eko abenduak 2an ospatu zen. Guztira 26 pertsonak hartu zuten parte, Udaleko eta Batzar Administratiboetako ordezkariak barne. Foroan bi gai landu ziren bereziki: Tokiko Ekintza Planaren eskemako programen artean lehentasunak finkatzea, eta ekintzen inguruan eztabaidatu eta ekarpenak egitea. Ondoko taulan lehentasunak finkatzeko ariketaren emaitzak jasotzen dira.

PROGRAMA	PUNTUAKETA	GUZTIRA
1.1 Herritarren arteko harremana eta herriaren aldeko atxikimendua sustatzea	$3*0+2*1+1*1=$	3
1.2 Herritarren sentiberatzea eta elkartasuna bultzatzea	$3*3+2*4+1*8=$	25
2.1 Zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza egokitzea, osasuna, gizartea eta hezkuntzari dagokienez	$3*13+2*2+1*2=$	45
2.2 Bideragarritasuna eta errentagarritasuna hobetzeko asmoz, bertako saltoki eta ostalaritzaren ekimenak bultzatu eta lagundu	$3*1+2*2+1*4=$	11
2.3 Herritar guztiei egokitutako jarduera eta espazioak eskaini aisia eta kirolerako	$3*4+2*2+1*4=$	20
2.4 Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKTak) herritar guztien eskura jarri	$3*1+2*4+1*5=$	16
3.1 Landatartasuna udal plangintzan txertatzea	0	0
3.2 Udallerriaren izaera landatarra kontserbatzea, baita auzo bakoitzaren nortasuna ere	$3*1+2*2+1*7=$	14
3.3 Zuiako ondare kulturala kontserbatzea eta balioan jartzea	$3*0+2*4+1*0=$	8
3.4 Euskaraz geroz eta gehiago bizitzea	$3*9+2*8+1*0=$	43
4.1 Barneko eskariari egokitutako etxebizitzaren eskaintza lortzea	$3*9+2*2+1*1=$	32
4.2 Iraunkorra den etxebizitza-parkea egotea sustatzea	$3*4+2*6+1*1=$	25
5.1 Kalitatezko espazio ireki publikoak edukitzea	$3*1+2*3+1*6=$	15
5.2 Hondakinen bilketa ondo kudeatzea, eta bide garbikuntza egokia izatea	$3*13+2*6+1*3=$	54
6.1 Jarduera ekonomikoek ingurumena errespetatu dezaten bultzatzea	$3*2+2*2+1*9=$	19
6.2 Arrisku natural eta teknologikoak aurreikustea	0	0
6.3 Zarata, aire, ur eta lurzoruei dagokienez, goreneko kalitatea bilatzea Zuian	$3*9+2*11+1*0=$	49

PROGRAMA	PUNTUAKETA	GUZTIRA
7.1 Herriguneetako eta hauen arteko, nahiz udalerritik kanpoko mugikortasunean, ibilgailu partikularraren erabilera suposatzen ez duten aukerak garatu	$3*13+2*5+1*2=$	51
7.2 Bide sarea egoera onean mantentzea	$3*2+2*2+1*1=$	11
7.3 Istripuak gutxitzea udalerrian	0	0
7.4 Mugikortasun segurua eta lasaia bermatzea	$3*0+2*6+1*7=$	19
7.5 Zuiako herriguneetan eta eraikin publikoetan irisgarritasuna hobetzea	$3*1+2*7+1*4=$	21
8.1 Natura eta paisaiaren balioak ezagutzea, eta hauek kontserbatzeko helburu eta neurriak finkatzea	$3*3+2*3+1*4=$	19
8.2 Zuiako natura eta paisaiaren balioek jasaten dituzten inpaktu, mehatxu eta arriskuei aurre egitea	$3*2+2*1+1*5=$	13
8.3 Zuiako natura eta paisaiaren balioen antolamendu eta kudeaketan aktiboki parte hartzea	$3*2+2*3+1*0=$	12
9.1 Uraren kontsumoa murriztea, eta erabili ondoren garbi bueltatzea; honela bakarrik izango da baliabide berriztagarri	$3*10+2*2+1*4=$	38
9.2 Energia kontsumoa gutxitzea, eta energia berriztagarrien ekoizpen eta erabilera handitzea	$3*1+2*5+1*7=$	20
9.3 Onura publikoko mendiak iraunkortasuneko irizpideekin kudeatzea	$3*1+2*3+1*3=$	12
10.1 Udalerrian enplegu kalifikatua eta kalitatezkoa sor dadin bultzatzea	$3*11+2*3+1*0=$	39
10.2 Jarduera ekonomikoak dibertsifikatzea, bertako ekimenak sustatzea, eta udalerriko jarduerari balio erantsia ekarriko dieten hobekuntzak bultzatzea	$3*5+2*1+1*2=$	19
11.1 Udaleko gaietan herritarren partaidetza sustatzea, gorpuztea eta arautzea	$3*0+2*4+1*3=$	11
11.2 Udala eta Administrazio Batzarren arteko koordinazio eta lankidetzak egokiak ziurtatzea	$3*0+2*3+1*0=$	6
11.3 Talde mailako sinergiak erraztea	$3*0+2*1+1*1=$	3
11.4 Udal plangintza eta kudeaketan iraunkortasun irizpideak sartzea, eta iraunkortasuneko gaietan giza-baliabide minimoak bermatzea	$3*3+2*3+1*1=$	16
Zuian burututako herritarren parte hartzerako foroan programei emandako lehentasun-maila		

Herritarren partaidetza bideratzeko ospatutako foroan eztabaidatu zen zirriborroko ekintzen inguruan herritarrek egin zituzten ekarpenak, dokumentuaren bigarren zirriborro bat osatuz integratu ziren. Udala eta Batzar Administrazioen ordezkariak dituen Tokiko Agenda 21eko Batzordean bigarren zirriborro hau eztabaidatu ondoren, dokumentu honetan jasotzen den Tokiko Ekintza Plana osatu zen.


Tokiko Ekintza Plana osatzen joan den epean, argi geratu da honek dituen ekintzen kopurua IHOBek gomendatzen duena gainditzen duela. Ondorioz, Ekintza Planak jasotzen dituen ekintza guztiak burutzea zaila izango da, are gehiago egungo krisiaren baitan. Lehentasun gutxiagokoak diren ekintzak eranskin batera eramatearen aukera aztertu da, urtero egingo diren ebaluazioetan bertatik ekintzak berreskuratu ahal izateko. Hala ere, Tokiko Ekintza Plana onartzeko orduan eranskin hori ez sortzea erabaki da, eta aukera hau urteko lehen ebaluatzea egiteko momentuan aztertuko da.

1.2. Tokiko Ekintza Planaren jarraipena eta urteko programazioaren inguruan ohar laburrak

Tokiko Ekintza Plana onartzen denean, berau burutzeko finkatzen den zortzi urteko epeari hasiera ematen zaio. Tokiko Ekintza Planaren kudeaketa errazteko, eta bere garapena ahalik eta gehien errazteko, Udalak hainbat baliabide tekniko eta aholkularitza eskura ditu Udalsarea 21aren baitan (jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea). Jarraipena eta urteko programazioa egiteko erabiliko den tresna nagusia MUGI 21 izeneko tresna informatikoa da, Udala Udalsarea 21ean sartzen denean instalatuko dena.

Udalsarea 21eko Web orrian jarraipena eta urteko programazioari buruzko argitalpen eta dokumentuak aurki daitezke, informazio zehatzagoa jasotzen dutenak.

Ondoren, urtero burutuko diren lanak jasotzen dituen eskema bat erakutsiko dugu soilik, Tokiko Ekintza Planaren urteko ebaluazioan herritarren partaidetza integratzea komenigarria dela gogoraraziz.



2. TOKIKO EKINTZA PLANA

2.1. Udalerrirako finkatutako ikuspegia eta xedeak

Tokiko Ekintza Plana landu den aldi berean, udalerrriak datozen zortzi urteetarako planteatzen duen ikuspegia eta xedeak finkatzen joan dira.

2.1.1. IKUSPEGIA

2020. urtean, herritarrek komunitate bizi, dinamiko eta partizipatiboa osatzen dute herri ezberdinetan banatuta, eta eguneroko bizitzarako behar dituzten zerbitzu gehienak udalerrrian izatetik onura ateratzen dute. Herritarrek ondo kontserbatutako inguru naturalaz gozatzen dute, aisialdian oinez eta bizikletaz erraz zeharka daitekeena.

2.1.2. XEDEAK

1. Baias ibaian aurreikusitako idoia eraikita eta funtzionala izatea.

Zergatiaren azalpena: Udalak gai honen gainean eskumenik ez duen arren, udalerrientzat hain helburu garrantzitsua dela uste da, honi buruzko helburu bat ezartzea ezinbestekoa jotzen dela. Udalaren esku ez dagoenez, xedea beteko denik ezin daiteke ziurtatu.

2. Uraren etxeko kontsumoa biztanle eta eguneko 115 litroz azpikoa izatea lortzea.

Zergatiaren azalpena: Udaletik industriaren kontsumoan eragitea zaila denez, xedea etxeko sektorerara mugatzen da. Egun, herrietako etxeko kontsumoaren daturik ez dago eskura, eta xedearen erreferentzia Udalsarea 21eko udalerrien batz bestekotik abiatuz ezartzen da. Xedeak ziurgabetasun maila bat du, herri guztien kontsumoko datuak ezagunak ez direlako, baina printzipioz, lor daitekeela dirudi.

3. Oinezkoentzat eta bizikletentzat egokia den 10 kilometroko luzerako sare seinaleztatu bat izatea.

Zergatiaren azalpena: oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari lotutako hainbat ekintza dago, baita proposamen zehatzak konpondu/seinaleztatu beharreko ibilbideen inguruan. Beraz, nahikoa sentiberatze eta motibazio sumatzen da gaiaren inguruan helmuga bat planteatzeko. Arabako landa-eremuko partzela-bideen luzera handia eta herrien sakabanaketa kontuan izanda, oinez/bizikletan mugikortasuna bultzatu nahi bada, finkatutako baliora iristeko arazorik ez litzateke egon behar. Gainera, balio baxuago batek ezingo luke oinezkoen eta bizikleten mugikortasun eraginkorra bermatu.

4. Udal-eraikinen %100ean irisgarritasuna bermatzea.

Zergatiaren azalpena: Udaletxeak irisgarritasuneko araudia betetzen ez duenez, egoki ikusten da helmuga finkatzea, Udalaren ardura diren eraikinei mugatua. Teknikoki helmuga bideragarria den arren, bideragarritasun ekonomikoak mugatuko du baliora iristea posible izango ote den ala ez, Ekintza Planean ezartzen diren lehentasunen arabera.

5. Gazteei zuzendutako etxebizitza-politika garatu eta kontsolidatua edukitzea.

Zergatiaren azalpena: gizarte gaien inguruan helmugak ezartzea erraza ez den arren, pisu handia dute udalerrriaren iraunkortasunean. Honegatik proposatzen da helmuga hau, gazteen migrazioan aldaketa nabarmenak ekarri beharko lituzkeena. Helmuga honetan

datza: udalerriko gazteei zuzendutako etxebizitza-politika zehatza edukitzea, hauen etxebizitza-eskaria ezagutzetik abiatuz, eskari honi erantzuteko eraiki/moldatuko diren etxebizitzak zehaztuko dituen, baita hauek eskuratzeko baldintzak, jabetzan edo alokairuan izango ote diren, ekintzak finantzatzeko tresnak, eskaintza eskarian egon daitezkeen aldaketei egokitzeko bideak, eta abar finkatuko dituen.

6. Udalerriko basoei lotutako enpresa-ekimen kontsolidatu bat izatea behintzat.

Zergatiaren azalpena: baso-sektoreari lotutako jarduerak garatzeko udalerrian dagoen potentziala kontuan izanda, eta Ekintza Planak hainbat ekintza dituen beraz bultzatzeko, xede moduan finkatzen da lehen Ekintza Plana burutzerako behintzat jarduera ekonomiko bat izan dadila egoera kontsolidatuan.

2.2. Tokiko Ekintza Plana

2.2.1. TOKIKO EKINTZA PLANAREN EGITURA

Diagnostikoan aurkitutako gabeziei erantzunez iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko helburua du Tokiko Ekintza Planak. Horretarako, hiru mailatan egituratzen da:

1. **Lerro estrategikoak:** udalerriak bilatzen dituen helburu zabal eta nagusien zerrenda da, denbora epe luze baterako mantenduko direnak.
2. **Programak:** Lerro Estrategikoek finkatzen dituzten helburu orokorrak burutzen lagunduko duten helburu zehatzagoak, ekintzak gauzatu ahala alda daitezkeenak.
3. **Ekintzak:** helburuak lortzeko gauzatuko direnak, zehaztasun handiz azaltzen direnak (deskribapena, burutzeko epea, lehentasun maila, kostua, jarraipenaren pertsona arduraduna, eta abar). Ekintza bakoitzean azpi-ekintza konketuak adierazi daitezke.

2.2.2. ZUIAKO TOKIKO EKINTZA PLANAREN EDUKIAK

Dokumentu honen ondoko orrietan Tokiko Ekintza Planeko ekintzak jasotzen dira, dagozkien Ildo Estrategiko eta Programetan antolatuta.

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUNA	ERANTZUNKIDEA	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/LEHENTASUNA
IE.1 HERRI BIZI, PARTIZIPATIBO, SOLIDARIO ETA ELKARTUA SUSTATZEA	1.1 Herritarren arteko harremana eta herriarren aldeko atxikimendua sustatzea	1.1.1 Udalerriko talde eta elkarte anitz eta aktiboetatik eta Udaletxetik jarraitu eskolaz kanpoko kirol, kultura eta euskararen sustapenerako ekintzak antolatzeke lan zabalarekin.	Kultura Teknikaria	Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol Zinegotzia	Corto-Motza	Media-Ertaina
	1.2 Herritarren sentiberatzea eta alkartasuna bultzatzea	1.2.1 Udal aldizkarian iraunkortasunaren inguruan sensibilizazio artikulua argitaratu aldiro.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
IE.2 HERRITARREN EGUNEROKO BEHARRAK UDALERRIAREN BAITAN ASETZEA	2.1 Zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza egokitzea, osasuna, gizartea eta hezkuntzari dagokienez	2.1.1. Udalerriko Gizarte Zerbitzuaren lan zabalarekin jarraitu.	Gizarte Langilea	Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol Zinegotzia	Corto-Motza	Media-Ertaina
		2.1.2 Beste herrietan bizi diren herritarrei Murgian kokatzen diren gizarte eta osasun zerbitzuetara iriztea erraztu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		2.1.3 Gizarte politikekin zerikusia duten politikak sustatzen eta laguntzen jarraitu.	Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol Zinegotzia		Corto-Motza	Media-Ertaina
		2.1.4 Ambulategia handitzeko Osakidetzari aukerak eskaintzen jarraitu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		2.1.5 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari lehen bait lehen Los Paules-eko zentrorako adostutako reformak bete ditzala eskatu, eta zentroa berri arte, behin behineko instalazioak segurtasun kontuetan legalitatea bete dezatela eskatu (ebakuazio planak, segurtasuna, suteak, eta abar), eta zerbitzu egokia ziurtatuko duten gela kopuru minimoarekin.	Alkatetza		Corto-Motza	Alta-Altua
		2.1.6 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari Bigarren Hezkuntzan B eta D ereduak mantendu ditzala eskatu.	Alkatetza		Corto-Motza	Media-Ertaina

IE.2 HERRITARREN EGUNEROKO BEHARRAK UDALERRIAREN BAITAN ASETZEA	2.2 Bideragarritasuna eta errentagarritasuna hobetzeko asmoz, bertako saltoki eta ostalaritzaren ekimenak bultzatu eta lagundu	2.2.1 Tokiko Agenda 21eko Batzorde eta merkataritza eta ostalaritza sektoreen ordezkariekin urtean bilera bat egin.	Alkatetza			Medio-Ertaina	Baja-Baxua
	2.3 Herritar guztiei egokituakako jarduerak eta espazioak eskaini aisia eta kirolerako	2.3.1 Murgian dagoen gazteentzako zentro berriaren erabilera eta funtzionamenduaren inguruko jarraipena egin.	Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol Zinegotzia			Corto-Motza	Media-Ertaina
		2.3.2 Kultur eta kirol ekipamenduen erabilera partekatuzko ondoko udalerriekin harremanetan jarri, horrela udalerrri bakoitzak egiten dituen inbertsioei partidu gehien ateratzeko eta herritarrei zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.	Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol Zinegotzia			Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	2.4 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTak) herritar guztien eskura jarri	2.4.1 Interneteko konexioak eta udalerriko leku batzuetan telefono mugikorraren estaldurarekin ematen diren arazoak iturria aztertu, irtenbide egokiena aurkitu ahal izateko aurrepausu bezala.	Alkatetza			Largo-Luzea	Baja-Baxua
IE.3 BERTAKO IZAERA PROPIOA KONTSERBATZEA	3.1 Landatarasuna udal plangintzan txertatzea	3.1.1 Zuan ematen ari den landatarasun izaeraren galtzearen inguruko hausnarketa egin, helmuga batzuk ezarri, bai udalerrientzat, bere osotasunean, zein herri gune bakoitzeko, eta dagokion irizpideak ezarri.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea			Largo-Luzea	Media-Ertaina
		3.1.2 Nekazaritza ustiapenaren jarduerak nagusiaren osagarri izango diren beste batzuk ezartzea erraztu	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea			Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.1.3 Gailentzen den familiabakarreko etxebizitzaren tipologia buruz eta udalerrian aurreikusitako bizitegi hazkunde handien eraginaren inguruan hausnartu	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea			Largo-Luzea	Media-Ertaina

IE.3 BERTAKO IZAERA PROPIOA KONTSERBATZEA	3.2 Udalerriaren izaera landatarra kontserbatzea, baita auzo bakoitzaren nortasuna ere	3.2.1 Bigarren etxebizitzaren eta etxebizitzaren hutsen kopurua murrizteko, etxebizitzaren erabilera printzipala sustatuko duten neurriak hartu.	Hirigintza Batzordea	Alkatetza	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.2.2 Baso erabilera arautzeko aukerak aztertu, Zuiako paisaiaren balizko ezaugarriak mantentzeko.	Batzar Administratibo eta Udaletzeko Batzordea	Alkatetza	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.2.3 Eraikin eta etxebizitzaren zaharren zaharberritzea sustatu.	Hirigintza Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.2.4 Eskualdeko Landa Garapen Elkartean aktiboki parte hartzen jarraitu.	Alkatetza	Ordezkarria LGEan	Corto-Motza	Alta-Altua
		3.2.5. Udalerriko landa ustiaketaren uraren horniketa, kontsumoa eta saneamenduari zerikusia duten alderdiak sartu lehenengo sektorea sustatzeko martxan jartzen diren ekimenen artean.	Alkatetza	Hirigintza Teknikaria	Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		3.2.6 Herritarrak lehen sektoreak udalerrian sortzen dituen onuren inguruan sentsibilizatu, baita beratu laguntzeko beharrezko inguruan ere.	Landa Garapen Elkartea		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		3.2.7 Udal diru-laguntzen lerro espezifikoak sortu lehen sektorean lan egiten duten pertsonen zuzendua, trebakuntza, esperientzien elkartrukatzea, eta bestelako ekitaldiak antolatzeko (erakusketak, azokak, lehiaketak, eta abar).	Alkatetza		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.2.8 Lehen sektorean ustiaketak dituzten udalerriko jabeen arteko bilera bat egin etorkizunera begira dituzten itxaropenak jakiteko eta ekimen berriak sortzeko.	Eduardo Urrutia	Alkatetza	Corto-Motza	Alta-Altua
	3.3 Zuiako ondare kulturala kontserbatzea eta balioan jartzea	3.3.1 Arau Subsidiarioak udalerrin mailan babesteko proposatzen dituzten ondasun higiezinak babesteko eta modu eraginkorren mantentzeko tresnak garatu	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		3.3.2 Ondasun inmateriala babestu eta mantentzeko ekimenak burutu.	Alkatetza	Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol Zinegotzia	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	3.4 Euskaraz geroz eta gehiago bizitzea	3.4.1 Udaletxeak antolatzen dituen umeentzako aktibitate guztiak euskaraz mantendu eta euskararen presentzia handitu bestelako eskolaz kanpoko aktibitateetan, kirolekoetan eta abar.	Kultura Teknikaria	Euskara Teknikaria	Largo-Luzea	Alta-Altua
		3.4.2 Koadrillako euskara teknikariaren postua finkatu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.4.3 Zuiako Koadrillako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatu.	Euskara Teknikaria		Largo-Luzea	Alta-Altua
		3.4.4 Euskara ikasteko, zein euskararen sustapenerako aktibitateak antolatzeko diru-laguntzen lerroa kontsolidatu.	Euskara Zinegotzia	Euskara Teknikaria	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.4.5 Euskararen presentzia handitu udal aktibitateetan	Kultura Teknikaria	Euskara Teknikaria	Medio-Ertaina	Alta-Altua

IE.4 UDALERRIAREN BEHARREI EGOKITUTAKO ETXEBIZITZAK IZATEA	4.1 Barneko eskariari egokituak etxebizitzaren eskaintza lortzea	4.1.1 Zuiako biztanleriaren etxebizitzaren beharren inguruko ikerketa bat egin, alokairua ere kontutan hartuko duena	Alkatetza			Medio-Ertaina	Alta-Altua	
		4.1.2 Hurrengo egoitza hazkundeak Zuiako biztanleentzat erdieskorak izan daitezten mekanismoak ezarri.	Alkatetza			Largo-Luzea	Alta-Altua	
	4.2 Iraunkorra den etxebizitza-parkea egotea sustatzea	4.2.1 Obren lizentziak eskatzen dituztenei eraikuntza jasangarriari buruzko informazio laburra eman (orientazioa, aislamenduak, materialak, eraginkortasun energetikoa, eta abar).	Hirigintza Teknikariak				Corto-Motza	Media-Ertaina
		4.2.2 A-3600 errepidearen desafekzioa eskatu Murgian duen tartean.	Alkatetza				Corto-Motza	Media-Ertaina
IE.5 KALITATEZKO HIRI-PAISAIK GOZATZEA	5.1 Kalitatezko espazio ireki publikoak edukitzea	5.1.1 Udalerrian dauden berdeguneak eta landarediaren aldetik baliozgarriak diren elementuak egoki identifikatu eta behar bezala babestu.	Hirigintza Teknikariak	Batzar Administratibo guztiak		Corto-Motza	Alta-Altua	
		5.2.1 Hondakinen sorrera eta gaikako bilketaren inguruko datuak udalerrira ezagutzeko Gorbeako Inguruen Partzuergoko kontrata berriak ezarri dituen baliabideak martxan jarri.	Gorbeia Inguruko Patzuergoa			Corto-Motza	Media-Ertaina	
	5.2.2 Udalerriko olio bilketa hobetzeko aukerak aztertu.	Alkatetza			Medio-Ertaina	Media-Ertaina		
	5.2.3 Herri guztietan gutxinaka hondakinen ontziak lurperatzeko aukerak aztertu.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea	Gorbeia Inguruko Patzuergoa		Medio-Ertaina	Alta-Altua		
	5.2.4 Udalerrian bertan hondakin begetalak kudeatzeko aukerak aztertu, edo/eta beste hondakin organiko guztiak konpostaiaren bidez.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea			Medio-Ertaina	Alta-Altua		
	5.2.5 Hondakinen inguruko sentsibilizazio ekintzak burutzen jarraitu, herritarren artean gizalegezko jarrerak sustatzeko bereziki.	Gorbeia Inguruko Patzuergoa	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua		
	5.2.6 Aurkitutako eskonbrotegi eta zabortege zonaldeetan eragin	Alkatetza	Hirigintza Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua		
	5.2.7 Udal araudiaren bitartez bideen betelanetan eskonbroen erabilera arautu	Alkatetza	Hirigintza Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua		
	5.2.8 Hondakinen ontzien mantenimendu egoera eta berritzeko beharra aztertu	Batzar Administratibo guztiak	Gorbeia Inguruko Patzuergoa		Corto-Motza	Baja-Baxua		

IE.6 OSASUNGARRIA ETA ZENTZUMENENTZAT ATSEGINA DEN INGURUA KONTSERBATZEA	6.1 Jarduera ekonomikoek ingurumena errespeta dezaten bultzatzea	6.1.1 Landatar hondakinak modu egokian kudeatzeko beharrezkoak diren gestioak egin	Gorbeia Inguruko Patzuergoa			Largo-Luzea	Media-Ertaina
	6.2 Arrisku natural eta teknologikoak aurreikustea	6.2.1 URArekin harremanak mantendu berriro ere eskatzeko udalerriko ibaiertzeetan eragin dezaten bazterren marruskadura ekiditzeko helburuarekin.	Batzar Administratibo guztiak			Corto-Motza	Baja-Baxua
		6.2.2 Lur urbanoan dauden ur-hartuneen kopurua berrikusi eta egokitu	Hirigintza Teknikariak			Medio-Ertaina	Baja-Baxua
	6.3 Zarata, aire, ur eta lurzoruei dagokienez, goreneko kalitatea bilatzea Zujan	6.3.1 Udalerriko zarata mapa egin	Alkatetza			Largo-Luzea	Alta-Altua
		6.3.2 AP-68 eta N-622 errepidetan zarata gutxitzeko gailuen kokapena eskatu.	Alkatetza			Corto-Motza	Alta-Altua
		6.3.3 Balizko kutsakorrek diren iharduera edo instalazioak jasan duten edo jasaten duten lurretan aritu.	Alkatetza	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		6.3.4 Balizko kutsakorrek diren iharduera edo instalazioak jasan duten edo jasaten duten lurren kokapena zein den udalerrian helarazi herritarrei	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria			Medio-Ertaina	Baja-Baxua

IE.7 UDALERRIAREN BAITAN ETA HONEN INGURUEKIN MUGIKORTASUN EGOKIA ESKAINTZEA	7.1 Herriguneetako eta hauen arteko, nahiz udalerritik kanpoko mugikortasunean, ibilgailu partikularren erabilera suposatzen ez duten aukerak garatu	7.1.1 Udal Mugikortasun Plan bat idaztea egokia ote den aztertu, mugikortasunaren inguruan udalak burutzen dituen ekintza guztiak integratuko dituen, ikuspegi global batekin	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea		Corto-Motza	Media-Ertaina
		7.1.2 Herritarren garraio beharrak, mugikortasun ohiturak eta garraio publikora edo partekatutako kotxera aldatzeko prestotsauna jakiteko bideak sortu	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		7.1.3 Garraio publikoaren eskaintza herritarren eskaerei egokitzeko dagozkien erakundeei eskaerak egin	Alkatetza		Corto-Motza	Alta-Altua
		7.1.4 Garraio publikoaren eskaintza modu egokian ezagutzera eman (ordutegiak, prezioak) eta ordutegietan ematen diren aldaketak ezagutarazi.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Alta-Altua
		7.1.5 Udalerriko biztanle guztiei bonoa erabiltzeko baimena eman diezaien eskatu Arabako Foru Aldundiari.	Alkatetza		Corto-Motza	Alta-Altua
		7.1.6 Murgia eta beste herrien arteko jubilatuen mugikortasuna hobetzeko aukerak aztertu.	Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol Zinegotzia		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		7.1.7 Bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pisten sare bat diseinatu, herritarren eguneroko mugikortasun beharrak, eta aldi berean nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako lanen beharrak, baita aisialdi erabileren beharrak ere asetzen dituen, eta segurua dena	Hirigintza Teknikariak	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria eta Batzar Administratibo guztiak	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		7.1.8 Bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pista sarearen erabilera antolatu eta arautu, aisialdiko erabileren presioa kontrolatzeko, eta lehen sektorearen erabilerak errazteko	Hirigintza Batzordea	Batzar Administratibo guztiak	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		7.1.9 Herritarrei bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pista sarearen inguruko informazioa helarazi (mapa, erabiltzeko arauak, eta abar).	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		7.1.10 Vitoria-Gasteiza eta herrien eta Murgia artean mugitzeko autoa partekatzeo ekimena martxan jartzeko aukerak aztertu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Media-Ertaina
7.2 Bide sarearen egoera onean mantentzea	7.2.1 Bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pista sarean egokitzapena egiteko beharrak planifikatu, aurreikusitako erabileren eta egungo egoeraren arabera, dagozkien lehentasunak ezarri.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina	
7.3 Istripuak gutxitzea udalerrian	7.3.1 Aldundiaren jabegokoak diren eta udalerritik pasatzen diren errepideetan, Arabako Foru Aldundiari eskatu kotxeen abiadura kontrola dezala.	Alkatetza		Corto-Motza	Baja-Baxua	
	7.3.2 Bide hezkuntzaren eta mugikortasunaren praktika onen inguruko aldikako kanpainak burutu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria	Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol Zinegotzia	Medio-Ertaina	Baja-Baxua	

IE.7 UDALERRIAREN BAITAN ETA HONEN INGURUEKIN MUGIKORTASUN EGOKIA ESKAINTZEA	7.4 Mugikortasun segurua eta lasaia bermatzea	7.4.1 Ametzagatik Gillernara doan errepidean altzatutako bi paso jartzeko eskaeraren jarraipena egin.	Ametzagako Batzar Administratiboa		Corto-Motza	Media-Ertaina
		7.4.2 Ametzagako herrian zebrabide bat jartzeko eskaria egin.	Ametzagako Batzar Administratiboa		Corto-Motza	Media-Ertaina
		7.4.3 Geihegizko abiadurarengatik udalerrian dauden puntu beltzak identifikatu eta Batzar Administratibo eta Udaletxearen artean udalerritik pasatzen direnean ibilgailuen abiadura kontrolatzeko politika bateratu.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		7.4.4 Murgia kale printzipala bidebanatzeko aukerak aztertu, Udaletxeko plazaren inguruan, oinezkoen tramo bat lortzeko.	Hirigintza Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		7.4.5 Abiadura eta aparkatzeari buruzko sentsibilizazio ekintzak garatu	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua
	7.5 Zuiako herriguneetan eta eraikin publikoetan irisgarritasuna hobetzea	7.5.1 Irisgarritasun udal Plana idatzi.	Hirigintza Batzordea		Largo-Luzea	Media-Ertaina
IE.8 PAISAIA ETA NATURAREN BALIOAK BABESTE A	8.1 Natura eta paisaiaren balioak ezagutzea, eta hauek kontserbatzeko helburu eta neurriak finkatzea	8.1.1 Udalerriko zuhaitz bereziak inbentariatu eta babesteko aukerak aztertu.	Alkatetza	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	8.2 Zuiako natura eta paisaiaren balioak jasaten dituzten inpaktu, mehatxu eta arriskuei aurre egitea	8.2.1 Onura Publikoko Mendietan egiten diren lanen ondoren, bideen egoera ona mantendu	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea		Medio-Ertaina	Alta-Altua

IE.8 PAISAJA ETA NATURAREN BALIOAK BAKESTEA	8.3 Zuiako natura eta paisaiaren balioen antolamendu eta kudeaketan aktiboki parte hartzea	8.3.1 Zurezkoak ez diren baso baliabideen inguruko sentsibilizazio ekimenak garatu (ehiza, perretxikoak, baiak, eta abar)	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		8.3.2 Perretxikoen esparrua sortzeko aukerak aztertu.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		8.3.3 Gorbeia Parke Naturaleko antolaketa eta kudeaketan parte hartzen jarraitu, bai Udaletxe eta Batzar Administratiboaren partez Patronatuan, zein herritarren partez.	Alkatetza	Ordezkaria	Corto-Motza	Baja-Baxua
IE.9 BALIABIDE NATURALEN ERABILERA IRAUNKORRA SUSTATzea	9.1 Uraren kontsumoa murriztea, eta erabili ondoren garbi bueltatzea; honela bakarrik izango da baliabide berriztagarri	9.1.1 Aurreikusitako urtegia egin dadin eskatu Eusko Jaurlaritzari eta eskariaren jarraipen bat egin	Alkatetza		Corto-Motza	Alta-Altua
		9.1.2 Jada esleituta dauden saneamenduaren hobekuntzaren obren burutzapenaren jarraipena egin, epeak betetzeari dagokionez.	Alkatetza	Hirigintza Teknikaria	Largo-Luzea	Alta-Altua
		9.1.3 Udaletxe eta Batzar Administratiboaren artean uraren zikloaren kudeaketa eredia egokitu.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria	Medio-Ertaina	Alta-Altua
		9.1.4 Ur hornidura eta saneamendu sarean hobekuntza eta inbertsio plan bat idatzi, behin egungo egoeraren balorazio bat eginda Udaletxe eta Batzar Administratiboaren artean.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		9.1.5 Udalerrian ematen den uraren behar eta kontsumoen jarraipena egiteko eraginkorra den sistema bat ezarri Udaletxe eta Batzar Administratiboaren artean.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea		Largo-Luzea	Alta-Altua
		9.1.6 Uraren kontsumoaren murrizketarako sentsibilizazio kanpainak egin herritarren artean, batez ere helduen artean.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		9.1.7 Jabetun lurretan dauden putzuen erabilera ezagutzea eta kontrolatzea ahalbidetzen duten mekanismoak ezartzeko aukerak eta egokitasuna ikertu.	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		9.1.8 Berdeguneen mantenimendurekin eta igerileku partikularrekin zerikusia duten uraren kontsumo handiak zaildu edo zigortu.	Batzar Administratibo eta Udaletxeko Batzordea		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		9.1.9 Bertako administrazioek kaleak garbitzeko eta berdegune publikoak mantentzeko ura aurrezteko neurri eta baldintzak garatu eta onartu.	Alkatetza		Corto-Motza	Media-Ertaina
		9.1.10 Xero-lorezaintza irizpideen arabera diseinua eta mantenimendua sustatu berdegune publiko eta pribatuetan eta batez ere bertako landaredia erabiliz.	Hirigintza Batzordea	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria	Corto-Motza	Alta-Altua

IE.9 BALIABIDE NATURALAREN ERABILERA IRAUNKORRA SUSTATzea	9.2 Energia kontsumoa gutxitzea, eta energia berriztagarrien ekoizpen eta erabilera handitzea	9.2.1. Energiaren inguruan sentsibilizazio ekimenak garatu udalerriko herritarrei zuzendutakoak.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Media-Ertaina
		9.2.2 Udalerrian energia berriztagarriak erabiltzeko aukera egokienak aztertzen jarraitu, biomasa bereziki, eta hauen hedapena sustatzen jarraitu.	Alkatetza	Hirigintza Teknikaria	Medio-Ertaina	Alta-Altua
		9.2.3 Udaletxe eta Batzar Administrazioen artean bertako administrazioaren kontsumo energetikoaren jarraipena egiteko sistema adostu eta udal ekipamenduen eta argiteri publikoaren kontsumoen erregistro bat sortu eta bere bilakaera herritarrei ezagutzera eman.	Batzar Administrazio eta Udaletxeko Batzordea		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		9.2.4 Argiteri publikoan energia eraginkortasuna hobetzeko ekimenekin jarraitu.	Alkatetza	Hirigintza Teknikaria	Medio-Ertaina	Alta-Altua
9.3 Onura publikoko mendiak iraunkortasuneko irizpideekin kudeatzea	9.3.1 Alokatu gabe gelditzen diren ehiza esparruetan gertatzen diren istripuen ondorioz dauden arduraz Udaletxe eta Batzar Administrazioen artean jarrera bat adostu eta Arabako Foru Aldundiara helarazi.	Batzar Administrazio eta Udaletxeko Batzordea		Medio-Ertaina	Baja-Baxua	
		9.3.2 Udalarenak eta Batzar Administrazioenak diren Onura Publikoaren Mendiaren antolaketa eta kudeaketa aktiboki parte hartu.	Batzar Administrazio eta Udaletxeko Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
IE.10 JARDUERA EKONOMIKO ANITZAK, BERTAN SORTUTAKOAK, ETA KALITATEZKO ENPLEGUA BULTZATzea	10.1 Udalerrian enplegu kalifikatua eta kalitatezkoa sor dadin bultzatzea	10.1.1 Zuiako enpleguaren eskaintzaren inguruko hausnarketa sortuko duen ekintza bat diseinatu, interesatuta egon daitezkeen eragile guztiekin.	Ekonomi Sustapenerako, Enplegu eta Turismo Teknikaria	Alkatetza	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		10.1.2 Lehenengo sektorean lan egiten duten pertsonen zuzendutako heziketa ekintzak burutu.	Ekonomi Sustapenerako, Enplegu eta Turismo Teknikaria		Corto-Motza	Media-Ertaina
		10.1.3 Autoenplegua sustatzeko ekintzak burutu.	Ekonomi Sustapenerako, Enplegu eta Turismo Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	10.2 Jarduera ekonomikoak dibertsifikatzea, bertako ekimenak sustatzea, eta udalerriko jardueren balio erantsia ekarriko dieten hobekuntzak bultzatzea	10.2.1 Enplegu eta iharduera ekonomikoei dagokionez, baita ingurumen zerbitzuak eskaintzeko eta olgeta iharduetarako euskarri moduan udalerriko jabego publikoko baso baliabide ugariak eskaintzen dituzten aukeren inguruan hausnartu.	Batzar Administrazio eta Udaletxeko Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
10.2.2 Etorbizunean emango den udalerriko garapen industrialaren inguruan hausnartu eta dimentsionatu Zuiako nekazal eta baso baliabideengan eta balio naturalengan mehatxu bat izan ez dadin.		Alkatetza	Hirigintza Teknikaria	Largo-Luzea	Media-Ertaina	
10.2.3 Zailtasun maila eta luzeera desberdinetako oinezko bide eta ibilbide turistikoak diseinatu, seinalatu eta zabaldu, udalerriko baliabide turistiko, natural eta kulturalak bilduko dituztenak.		Ekonomi Sustapenerako, Enplegu eta Turismo Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina	

IE: 11 GOBERNANTZA HOBEA: IZATEA: HURBILEKOAK, IRAUNKORRAK, ERAGINKORRAK ETA HAIEN ARTEAN KOORDINATUAK DIREN TOKI-ADMINISTRAZIOAK	11.1 Udaleko gaietan herritarren partaidetza sustatzea, gorpuztea eta arautzea	11.1.1 Udalerriko talde eta elkarteekin harremanak mantentzeko lanarekin jarraitu Udaletxetik.	Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol Zinegotzia			Corto-Motza	Media-Ertaina
		11.1.2 Udalerriko elkarte eta taldeekin harremanak dituzten udal langileen artean informazioa elkartrukatzeko sistema bat ezarri, sinergiak bilatzeko asmoz.	Kultura Teknikaria			Corto-Motza	Media-Ertaina
		11.1.3 Herritarren parte hartzea udal planifikazioan eta kudeaketan duen emaitzak zabaldu, horrela herritarrak geihago parte hartzera animatzeko.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria			Corto-Motza	Alta-Altua
		11.1.4 Tokiko Agenda 21aren inguruko informazio eta sentsibilizazio ekimenak gauzatu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria			Corto-Motza	Alta-Altua
	11.2 Udala eta Administrazio Batzarren arteko koordinazio eta lankidetzaren egokiak ziurtatzea	11.2.1 Udaletxe eta Batzar Administrazioen arteko harremana ebaluatu eta hobetzeko aukerak identifikatu.	Batzar Administrazio eta Udaletxeko Batzordea			Medio-Ertaina	Alta-Altua
	11.3 Talde mailako sinergiak erraztea	11.3.1 Udalerrian turismoa bultzatzeko asmoz, Koadrillarekin sinergiak sustatu.	Ekonomi Sustapenerako, Enplegu eta Turismo Teknikaria			Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		11.3.2 Koadrillaren eginkizunaren inguruan herritarrak informatzeko eta sensibilizatzeko ekintzak burutu.	Landa Garapen Elkartea			Medio-Ertaina	Media-Ertaina

IE.11 GOBERNANTZA HOBEA IZATEA: HURBILEKOAK, IRAUNKORRAK, ERAGINKORRAK ETA HAIEN ARTEAN KOORDINATUAUAK DIREN TOKI-ADMINISTRATIOAK	11.4 Udal plangintza eta kudeaketan iraunkortasun irizpideak sartzea, eta iraunkortasuneko gaietan giza-balibid minimoak bermatzea	11.4.1 Ingurumen kudeaketa eta Iraunkortasunaren udal ekintza guztiei buruz ikuspegi orokor bat eman eta integratzen duen udal administrazioaren Ingurumen Kudeaketa eta Iraunkortasunaren Plan bat idazteko egokitasuna aztertu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Alta-Altua
		11.4.2 Udaletxe edo Batzar Administratiboek sustatzen dituzten eraikuntzetan edo berritze lanetan Eusko Jaurlaritzaren gidari jarraituz eraikuntza iraunkorreko irizpideak sartu Baldintza Agirietan.	Hirigintza Teknikariak		Corto-Motza	Alta-Altua
		11.4.3 Eraikuntzen eraikitzea sustatzen duten erakundeei eraikuntza iraunkorreko irizpideak jarraituz egin dezatela eskatu.	Alkatetza		Corto-Motza	Media-Ertaina
		11.4.4 Udal ibilgailuen erosketan iraunkortasun irizpideak sartu eta haien erabiltzaileei gidatze iraunkorraren inguruko arauari buruz informatu.	Alkatetza		Corto-Motza	Media-Ertaina
		11.4.5 Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen iunguruan barne sentsibilizazio ekimenak burutu Udalean.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Alta-Altua
		11.4.6 Udalerriko talde politikoen artean akordioak eta helburu komunak finkatu udal-mailako berdintasunaren inguruan.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		11.4.7 Udal kontratazio publikoetan baldintza sozialak sartu.	Idazkaritza	Alkatetza	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		11.4.8 Berdintasunaren gaian Arabako Foru Aldundiak Lurralde Historikoan berriki sortu duen udalerrri txikientzako aholkularitza teknikoaren eskaera kudeatu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		11.4.9 Tokiko Agenda 21eko aholkularitza teknikoa finkatu eta honetarako baliabidak udalerrriaren beharrei egokitzen direla aldiro aztertu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		11.4.10 Tokiko Agenda 21aren garapenaren jarraipena egingo duen Iraunkortasun talde edo Batzorde bat sortu	Alkatetza		Corto-Motza	Alta-Altua